



NAN-AREN ETA ESKUZKO SINADURAREN DATU PERTSONALAK ALDIZKARI OFIZIALETAN ETA WEBGUNEETAN ARGITARATZEARI BURUZKO GOMENDIOAK.

Gomendio honen xedea da aholkularitza ematea EAEko administrazio publikoek datu pertsonalak (NAN eta sinadura) buletin edo egunkari ofizialetan Interneten, erakundeen webguneetan edo beste edozein bitarteko elektronikoko edo telematikoren bidez argitaratzeari buruz, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidera egokitze aldera. Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko (DBEO) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, datu pertsonalen tratamendutzat hartuko da datu pertsonalak aldizkari edo egunkari ofizialetan Interneten, erakundeen webguneetan edo administrazio publikoen beste edozein bitarteko elektronikoko edo telematikoren bidez argitaratzea, kasu horretan datu pertsonalak komunikatzen baitira.

Gomendio honen ondorioetarako, DBEOren 4. artikuluan jasotako datu pertsonalen definizioari jarraituko zaio.

LEHENENGOA. - NAN zenbakia edo baliokidea argitaratzea.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, 8. artikuluan, datu pertsonal jakin batzuei publikitate aktiboa eman behar zaiela dio. Zehazki, hitzarmenen eta gomendioen kasuan, sinatzaileen aipamena.

Beraz, datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat datorren aztertu behar da, eta ikusi, 9/2013 Legean ezarritakoa kontuan hartuta, identifikazio horretan NAN zenbakia sartuta ote dagoen.

Lehenik eta behin, NAN datuaren izaera aztertu behar dugu. DBEOren 4.1) artikulua arabera, NAN zenbakia datu pertsonaltzat hartu behar da, haren bidez pertsona bat identifikagarria delako edo identifika litekeelako.

Bigarrenik, minimizazio-printzipioa aplikatuz eta datu pertsonalen babesaren ikuspegitik, ez da beharrezkoa NAN zenbakia edo baliokidea argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legean nagusi den gardentasun-helburua lortzeko, sinatzailea eta kargua identifikatuz lortzen baita. Datu hori ezagutzeak, gainera, sinatzaileen eremu publikoa gainditzen du, eta hirugarrenek



ezagutzeak haien ordeztaritzeko arriskua ere eragin dezake, bereziki transakzio elektronikoen eremuan.

Beraz, jardunbide egoki gisa, sinatzaileen NAN zenbakiak ez argitaratzea gomendatzen da. Elektronikoki sinatutako dokumentuen kasuan, haien sinadurak NAN zenbakia badu, eta sinadura elektronikoko hori agerian eduki nahi izanez gero, eskaneatutako dokumentuaren irudi bat argitaratzea gomendatzen da. Irudi horretan, sinatzailearen datu gisa, izen-abizenak eta kargua soilik agertuko dira, eta sinaduraren itxura definituko da, datu horiek soilik ikusteko moduan utziz.

BIGARRENA. – Eskuzko sinadurak argitaratzea.

Dokumentu baten sinatzailea kargu publikoa dela adierazteak zehaztasun eta osotasun handiena ematen dio dokumentua sinatzen duen ordezkariaren organoaren borondate-adierazpenari dagokionez.

Hala ere, eskuzko sinadura erreproduzitzeak hura faltsifikatzeko arriskua sor dezakeenez, eta eskaneatutako dokumentuan hitzarmena edo eskuz egindako sinaduraren kudeaketa-gomendioa gaineratzeak ez duenez informaziorik gehitzen administrazio publikoaren funtzionamenduaren gardentasunaren helburua lortzen laguntzeko, helburu hori egintza horiek dagokion Gardentasunaren Atarian argitaratuz lortu nahi baita, sinadura guztiak kentzea jardunbide egokitzat jotzen da. Sinadurarik ez badago, jatorrizkoa benetan sinatu dela adierazten duen aipamena bat egin daiteke.

Ildo horretan, Datuak Babesteko Espainiako Agintaritzak xedatzen du ezen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen 8.1 b) artikuluan “eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, ondoriozta daitekeela azken manu horrek ez diola estaldurarik ematen esku hartzen dutenen eskuzko sinaduraren hitzarmenak edo kudeaketa-gomendioak eskaneatutako dokumentuan sartzeari”.

HIRUGARRENA. - Izen-abizenak eta NANA batera argitaratzea, batera agertzea ezinbestekoa denean.

Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarriak arautzen du nola identifikatu interesdunak jakinarazpenetan administrazio-egintzen iragarkien eta argitalpenen bidez. Ezartzen da inola ere ez direla argitaratu behar izen-abizenak eta NAN zenbakia edo dokumentu baliokidea.

7. xedapen gehigarria Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Legearen zazpigarren xedapen gehigarria behin-behinean aplikatzeko Orientazioarekin osatu behar da; orientazio hura Datuak Babesteko Espainiako Agintaritzak argitaratu zuen, gainerako kontrol-agintaritzekin lankidetzan. Biak elkartuta, honako hau zehaztu dezakegu:

a) Administrazio-egintzak jakinaraztea eta argitaratzea:

Administrazio-egintza bat buletinetan jakinarazten bada, esaterako, hautaketa-prozesuak, dirulaguntzak..., interesduna izen-abizenekin eta NANaren edo atzerritarraren nortasun-zenbakiaren 4 zenbaki-zifrekin –karaktere alfabetikoak kenduta– identifikatuko da. 4 zenbaki-zifra horiek, nahitaez, **laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren posizioak** izan beharko dute. Hau da:

- 12345678X formatuko NANA emanda, laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren posizioetako digituak argitaratuko dira. Adibidean:
ABIZENA ABIZENA IZENA*** 4567*
- L1234567X formatuko AIZ bat emanda, posizioen formatuan dauden digituak argitaratuko dira, lehenengo karaktere alfabetikoa saihestuz: laugarrena, bosgarrena, seigarrena eta zazpigarrena. Adibidean:
ABIZENA ABIZENA IZENA**** 4567*
- ABC123456 formatua duen pasaporte emanda, sei zifra baino ez dituen, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren digituak argitaratuko dira, hiru karaktere alfabetikoak saihestuz. Adibidean:
ABIZENA ABIZENA IZENA**** 3456

b) Iragarkiak eta haien argitalpena:

Iragarki bidezko argitalpenen kasuan, batez ere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan jasotako emaitzarik gabeko jakinarazpenen kasuan, ukitua identifikatzeko, nortasun-agiri nazionalaren, atzerritarraren nortasun-zenbakiaren, pasaportearen edo agiri baliokidearen zenbaki osoa baino ez da erabiliko.

LAUGARRENA. - Premia- eta proportzionaltasun-judizio bat egitea, datu pertsonal bat argitaratzeari buruzko zalantzak daudenean.

Datu pertsonal jakin bat argitaratu behar ote den zalantzazkoa bada, premia- eta proportzionaltasun-judizio bat egin beharko da. Hau da, datu pertsonalak babesteko eskubidearen eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen arteko haztapena aztertu beharko da.

Hala, datu pertsonalen argitalpena datuen babesari buruzko araudiarekin bat datorrela ulertzeko, beharrezkoa izango da datu haiek bitarteko hautatuaren bidez zabaltzea, kontuan hartuta egitateak eta inguruabarrak, interes orokorraren mesedetan. Datu pertsonalen argitalpen-mota hori hautatzea izango da interes publikoa betetzeko har daitekeen neurririk egokiena, aproposena eta proportzionalena, honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Datu pertsonalak hedabide horretan argitaratzea lortu nahi den helburua lortzeko neurri bat izatea (egokitasun-judizioa).
- b) Argitalpenarekin lortu nahi diren helburuak modu hain intrusiboan lortu ezin izatea, datu pertsonalen babesaren kontuan hartuta, argitalpen hori beharrezkoa baita helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko beste bitarteko neurrizkoagorik ez dagoelako (premia-judizioa).
- c) Datu pertsonalen argitalpena proportzionala eta orekatua izatea, lortu nahi den helburuaren eta datu pertsonalak babesteko oinarriko eskubidearen murrizketa-mailaren arteko haztapena kontuan harturik, eta argitalpen horretatik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago ateratzea datu pertsonalen babesaren gaineko kalteak baino (proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian).

*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko
Ordezkaría
Delegada de Protección de Datos de la Administración Pública de la Comunidad
Autónoma de Euskadi*